

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UPV/EHUtik begira

LANERATZE JOERAK ETA UNIBERTSITATEAREN ERAGINA AZTERTZEN 2016

www.ehu.eus

AURKIBIDEA

00. AURKEZPENA

01. ZER GERTATU DA?

02. ZER GERTA DAITEKE?

03. ONDORIOAK

5. Aurkezpena

Iñaki Goirizelaia, UPV/EHUko Errektorea

7—10 INGURU EKONOMIKO, LABORAL ETA FORMATIBO OROKORRA.

- 7. Erantzun estrategia desberdinak Europaren baitan
- 9. Biztanleria aktiboaren zahartzea eta sarbide gaitzeko lan merkatua gazteentzat
- 10. Euskadiko AEko gazteen kualifikazio maila handia eta lehentasunen aldaketa azken urteotan

10—13 EGRESATUEN LANERATZEA

- 10. Egresatuen artean laneratzea handitu egin da, baina ikasketa eta enpleguaren arteko bat etortze txikiagoarekin
- 12. Hobetzeko kontratazio eta okupazio tipoak, hala eta guztiz ere, enpleguarekiko asetasuna hobetu egin da

13—15 PRAKTIKALDIEN SUSTAPENA

- 13. Praktika bolumenaren hazkundea
- 15. Praktikaldiek laneratzea indartzen dute, baina aldeak daude adar zientifikoen artean

16—19 ENPLEGUAREN IKUSPEGITIK

- 16. Hurrengo hamarkadan erretreta hartu izanaren eraginez ordezkapen behar handia
- 17. Enplegua gehitzeko beharra indartu behar da
- 18. Abiadura desberdinak enpleguaren berreskurapenean
- 18. Giza kapitalaren kualifikazioa hobetzea beharrezkoa da, bai eta balio erantsi handiko jarduerak sustatzea ere

19—20 JARDUERA UNIBERTSITARIOAN IKUSPEGIA

- 19. Unibertsitateak laneratzea indartzen ahalegindu behar du, baina babes behar du
- 19. Unibertsitateak zailtasunak ditu bere egitekoa baliabide gehiago gabe bete ahal izateko
- 20. Laneratze eta uztarketa apaleneko adarretan arreta berezia jarri behar da
- 20. Lan merkatua eraldatzen ari da azken urteotan

21—22 ONDORIOAK

2016ko uztaila



AURKEZPENA

Ondoren datorrenak UPV/EHUko azken promozioetako gure egresatuen praktikaldi zein laneratzeari buruzko azterlanaren ondoriak jasotzen ditu (ikasketak 2006 eta 2012 bitartean amaitu zituztenekin egindako azterketa). UPV/EHUko graduatu eta graduondoen laneratzean eragiten duten oinarrizko alderdien sintesia da. Datuak bere inguruan kokatu ditugu, eta lan merkatuaren bilakaera eta aurreikuspenekin zein unibertsitatearen jardunarekin berarekin jarri ditugu harremanetan. Izan ere, unibertsitateak formatzen dituen pertsonen laneratzea hobetzea bilatzen du.

Labur esanda, UPV/EHUko graduatu eta graduondokoen laneratzean eragiten duten oinarrizko alderdiez egin azterketaren sintesia da. Datuak bere inguruan kokatu ditugu. Emaizok lan merkatuaren bilakaera eta honen aurreikuspen zein unibertsitatearen jardunarekin berarekin jarri ditugu harremanetan. Izan ere, unibertsitateak formatzen dituen pertsonen laneratzea hobetzea bilatzen du.

2008-2015 aldia gora-beheratsuenetakoa izan da biztanleria aktiboaren laneratzeari dagokionez oro har, eta unibertsitateko titulua duten pertsonen laneratzean bereziki. Lan honetan, beraz, gure lan eremuan eta gure egresatuenean nabarmen eragin duten lan merkatuko aldagaiak aintzat hartu behar izan ditugu.

Bizi izandako atzeraldi ekonomikoak, zein gastu eta inbertsio publiko mugatuak nabarmen murriztu dute kontratazioa titulatu unibertsitarioak behar dituzten adarretan (hezkuntza zein osasun alorrean, besteak beste). Horrezaz gain, sektore pribatuan egitura ekonomikoaren aldaketa nabarmena gertatu da, bai eta lan harremanak arautzen dituzten araudiena ere, lan baldintzetan eragiten dutenak.

Ikerketa eta garapeneko jardueretan inbertitzeari dagokionez, honek atzera egin du hainbatetan aztertu dugun aldian (oro har hartuta, mantentzeko joera izan du, azken garaian enpresen alorrean indartzekoa ere bai); eta unibertsitateko titulazioa beharrezkoa den arloetan kontratazioaren apaltzea eragin du.

Labur esanda, unibertsitate honen eta bere egresatuen ahaleginen hartzaille den inguru sozio-laborala nabarmen aldatu da, bai bere ezaugarrietan, bai interbentzio publikoan. Eztabaida politiko eta sozialaren beharra dugu adostasun eta herri konpromiso handiko erantzunak gauzatzeko bidean jartzeko.

Esandako guztiak laguntzen du ulertzen non jardun behar izan duten azken urteotan unibertsitateko titulua zuten pertsonak eta UPV/EHU berak. Egoera konplexu honetan, eskura izandako baliabide guztiak indarrean jartzen ahalegindu gara, bai eta tresna berriak sortzen ere, arestian aipatu dugun bilakaerak UPV/EHU formatutako pertsonengan izan zezaketen eragina kaltegarria neutralizatzeko.


Gizarteak bere baitako aldaketen aurrean hartzen dituen erabakietan unibertsitateak protagonista izan behar du inongo zalantzarik gabe. European erreferentziazkotzat ditugun estatu eta erregioetan, ezagumendua sozialki eta ekonomikoki jasangarria izateko bidean den gizartearen muinean dago. Ondorioz, ezagumenduan egiten den inbertsioa ezinbesteko bidea eta apustu segurutzat ditugu.

Ez da gure asmoa konponbide magistralak ematea inork unibertsitateko talaia dei dezaketetik. Baina mezu argi bat emateko eginkizuna hartzen dugu: herri honentzat ekonomikoki eta ambientalki jasangarria izango den ezagumenduaren ekonomian aurrera egin behar dugu eta horretarako kontsentsu sozial eta politiko zabala behar dugu.

Azterlan honen ondorioak baliagarri izan daitezke zer gertatzen ari den ezagutu eta gure urratsak arrakastaz bideratzeko ingurumari honetan. Zalantza ugarikoa, baina hein berean aukerez betea den ingurumaria. Bere erroak ezagutzen dituen eta erronka berriei erantzuteko gai den gizartearentzat unibertsitateak zailtasun eta erronkak gainditzen laguntzeko giza kapitala formatzen zein ezagumendua eskaintzen eragile inplikatuenetarikoak izan behar du.

Iñaki Goirizelaia, UPV/EHUko Errektorea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea


ZER GERTATU DA?

INGURU EKONOMIKO, LABORAL ETA FORMATIBO OROKORRA

Kualitatiboki 70eko hamarkadaren amaieran hasitako enplegu galeraren pareko galera bizi izan dugu azken urteotan. Higiezin burbuila lehertzean, mundu mailan ekonomiak bizi izandako gora-behera eta birmoldaketek gure ekonomia egituratzen zuten jarduera nagusiei eragin diete.

- ERANTZUN ESTRATEGIA DESBERDINAK EUROPAREN BAITAN

Atzeraldi ekonomikoa eta enplegu desegitea ez dira berdin gertatu Europa osoan. Euskadiko AEren antzeko egitura ekonomikoa zuten erregioek ez dituzte horren ondorio negatiboak nozitu urte hauetan (2008-2015) eta estrategia desberdinak ikus daitezke Europaren baitan I+G arloko inbertsioari dagokionez. Arlo honetan Euskadiko AE-k ez da erreferentziazko erregioen abiadura berean aurrera egiten ari (*)



Oharra: Esferaren tamainak erregio bakoitzeko biztanleko BPGa adierazten du.


(*) Navarro, M., Gibaja, J.J., Franco, S., Murciego, A. (2012): Innovation, Global Change and Territorial Resilience. Bilbao: Orkestra




Euskadiko AEn berrikuntza jarduerak izaera industrial indartsua dute, Ingeniaritza eta Teknologiako ikerketa da gailen. I+G jardueretara bideratutako funts ekonomikoetan birmoldaketa gertatzen ari bada ere, Euskadiko AE-n ohiko eredia mantentzen da, non administrazioak bere baliabideen zati garrantzitsu bat bideratzen duen enpresek I+G jarduerak egin dituzaten.

Ondoren datorren grafikoan guretzat erreferentziazkoak diren erregioetan I+G gastuak izan duen bilakaera ikus daiteke eta honek enpleguaren bilakaerarekin duen harreman estua. Grafikoak adierazten duenez, erregio hauek ahalegin handia egin dute eta enpleguaren bilakaera nabarmen hobea izan da.

I+G gastua, BPG eta enpleguaren bilakaera (2008=100). 2008-13 epealdia




I+G (BPG %)



■ Euskal AE ■ EB-28

BPG per capita (€)




■ Euskal AE ■ EB-28

- BIZTANLERIA AKTIBOAREN ZAHARTZEA ETA GAZTEEN LANERATZEA

2008az geroztik biztanleria aktiboa nabarmen murriztu da eta bere zahartzea bizkortu. Halaber, ezaugarri unibertsitariorik ez duten segmentuetan iraupen luzeko langabeak biderkatu egin dira eta langabezia kronikoa sendotu egin da. Generoari dagokionez, emakume aktibo gehiago dago krisiaren hasieran baino, hazkundera, ordea, ez da aski gizonezkoek betetzen zituzten enpleguen galera orekatzeko. Eta hala ere, emakumeen aktibitate mailak bataz bestekoaren azpitik jarraitzen du.

Biztanleria aktiboaren bilakaera (2008=100)



Trebakuntzari dagokionez, ezaguna zaigun araua betetzen da, ikasketa maila handiagoarekin, aktibitate maila handiagoa eta langabezia arrisku txikiagoa. Esandakoa enpleguari dagokionez okerrenak izan diren urteetan ere bete da. Dena den, gazteek zailtasun handiak izan dituzte laneratzeko eta lan merkatuaren prekarizazio handi baten erdian egin dute. Horrek, halaber, gazteen artean unibertsitateko matrikulazioa indartu du, bai eta ikastaldia luzatzeko joera ere.



- EUSKADIKO AE-KO GAZTEEN KUALIFIKAZIO MAILA HANDIA ETA LEHENTASUNEN ALDAKETA AZKEN URTEOTAN


Euskadiko AEko gazteen kualifikazio maila oso handia den arren, langabezia arrisku larrian egon dira. Lanean diren gazteen artean kualifikazio ezaugarriak dituztenek gainerako gazteek baino maila sozio-profesional handiagoko lanpostuak betetzen dituzte, baina ikasketa eta enpleguaren arteko uztarketa ez da erabatekoa, UPV/EHUko egresatuen artean ere gertatzen da.

Matrikulatzean titulazio bat hautatzeko orduan lehentasunak ere aldatu egin dira azken urteotan. Zenbait sektore ekonomikotan laneratze maila apaldu dela hautemateak eta Goi Mailako Hezkuntzako Europako Eremuak (GMHEE) zenbait adar zientifiko zein teknikotan ekarritako titulazio aukeren ugaritzea aski arrazoi izan daitezke esan duguna gertatzeko, alegia, lehentasunen aldaketa.

EGRESATUEN LANERATZEA

- EGRESATUEN ARTEAN LANERATZEA HANDITU EGIN DA, BAINA IKASKETA ETA ENPLEGUAREN ARTEKO BAT ETORTZE TXIKIAGOAREKIN



Euskadiko AEko lizentziatu, diplomatu eta graduatuen artean aktibitate tasa apaldu egin da azken urteotan, baina 2015ean (2012ko promozioa) UPV/EHUko egresatuen aktibitate tasa bere onera itzultzen hasi da eta azken zazpi urteetako altuenetakoa da (%95,6). Norantza berean, enplegu tasak gora egin du bigarren urtez jarraian, azken promozioan %79,2ra iritsi da.





Jarduera tasa: egresatu guztien artean aktibo direnen ehunekoa

UPV/EHUko egresatuen artean zenbat eta adin handiagoa langabezia maila apalagoa dela dioen arua betetzen da. 2012ko gradu, diploma eta graduondoko egresatuen enplegu tasak ezagutza adar guztietan ikusten den joera aldaketaren irakurketa baikorra egiteko bidea ematen digute. Enplegu tasa %79,2-ra iristen da (2015 urtean 2012ko egresatuen artean) eta graduondokoen artean %83,9-ra. Bide beretik, langabezia tasa %17,1 da graduatuen artean eta 16,1 graduondokoen artean, batz besteko %18,7tik behera (EAEn 25-34 urtekoen artean EUROSTATen arabera). Datu itxaropentsuak dira hurrengo promozioentzat zein oraindik ikasten ari direnentzat.

-UPV/EHUko gradu eta maila baliokideko egresatuak, 2008-2011 prom.



- UPV/EHUko gradu eta graduondoko edo maila baliokideko egresatuak, 2012 prom.




Enplegu tasa: egresatu guztien artean enplegua dutenen ehunekoa

Langabezia tasa: aktibo diren egresatu guztien artean langabazeian daudenen ehunekoa



UPV/EHUko persona egresatuen jarduerari erreparatuz, erdia baino gehiago pertsonal teknikoa eta laguntzako profesionalak dira. Ongi uztartutako enplegua da, beraz. Krisi urteetan trebakuntza unibertsitariorik behar ez duen okupazioak gora egin du (Ostalaritza, Merkataritza eta Zerbitzu pertsonalak arloan esaterako). Ikasketekin uztartu gabeko enpleguaren hazkundera honelako hazkundera dagokio, apurka apaltzen doana aztertutako azken promozioetan. Sektoreka erreparatuz, Hezkuntza, Enpresa zerbitzuak, Osasuna eta zerbitzu sozialak dira uztardurarik handiena eskaintzen duten ohiko sektoreak UPV/EHUko egresatuen artean. Ingurumari honetan, azken promozioan hazi egin da enpleguarekiko asetasuna UPV/EHUko egresatuen artean, datu esanguratsua instituzioak arlo honetan duen eraginkortasuna agerian jartzen duena.

Enpleguarekiko gogobetetasun-maila.
UPV/EHUko graduko edo maila baliokideko egresatuak,
2008-2011 prom.




PRAKTIKALDIEN SUSTAPENA ETA HONEN ERAGINA LANERATZEAN

- PRAKTIKA BOLUMENAREN HAZKUNDEA

2008-2009 ikasturtetik 2014-2015 ikasturtea bitartean UPV/EHUen erregistratutako praktikaldi kopuruak gora egin du etengabe eta erritmo onean. Hazkunde hau praktikaldiak gauzatzeari lotutako eragile guztiak (Unibertsitatea, kanpo eragileak eta ikasleria) jabetu dira formakuntza praktikoak titulazioa eskuratzeko egindako lanari dakarkion onuraz




Borondatezko praktiken eta praktika kurrikularren bilakaera. UPV/EHU, 2007-2015



Atzeraldi garai honetan jarduera adar guztiek ez dute berdin jokatu borondatezko praktikaldi programak hartzerakoan eta adarren arabera aldeak ikusten dira. Aipatzekoa da lurraldeko ehun ekonomikoa eta praktikaldien arteko koherentzia. Halaber, aipatzekoa da laneratze handieneko adarren eta praktikak hartzen dituzten adarren artean dagoen desoreka ere.

Mikroenpresek praktika bolumen handia hartzen dute, nahiz eta gero graduoko egresatuei eskaintzen dieten laneratzea mugatua izan. Antzekoa gertatzen da zenbait sektoreekin, hala nola, Finantza aktibitateak eta aseguruetakoa edo Jarduera profesionalak eta laguntzaileak. 500 langiletik gorako enpresek, ordea, praktikaldi bolumen txikia hartzen dute eskaintzen duten laneratze mailarekin alderatuz gero.

Enpleguaren eta UPV/EHUko borondatezko praktiken banaketa enpresa tamainaren arabera (%). 2014/15 ikasturtea




- PRAKTIKALDIAK LANERATZEA INDARTZEN DUTE, BAINA ALDEAK DAUDE EZAGUMENDU ADARREN ARTEAN

Laneratzea errazten duten aldagaien artean praktikaldien eragina nabarmena da, bai trebetasunak eskuratzearakoan bai ibilbide profesional bat abiatzerakoan, ikasleek ere hala hautematen dute. Graduondoko hiru egresatutik bik egin dute unibertsitateko praktikaldiren bat, izan borondatezkoa zein derrigorrezkoa, graduon zein graduondokoan. Egresatuen artean, izan lizentziatu, diplomatu edo graduatu, %61ak egin du nolabaiteko praktikaldia (2011ko prom.). Posgraduako egresatuen artean %68ra iristen da (2012ko prom.) Praktikaldiak laneratzea nabarmen hobetzen du eta ondorioz, ikasten jarraitzeko beharra apaldu egiten da. Esan behar da, ordea, badaudela aldeak ezagutza adarren artean.

Garrantzitsua da azpimarratzea praktikaldiek laneratzean duten eragin positiboa. Datuek esandakoa babesten dute, graduon zein graduondoko egresatuen artean praktikak egin dituztenek aktibitate eta enplegu tasa handiagoa dute. Borondatezko praktikak eragile garrantzitsua dira zientzia esperimentaletan langabezia gutxitzerakoan. Osasun Zientzia eta Humanitateetan, aldiz, eragin mugatuagoa dute. Kontuan har dezagun titulazio horiek bere baitan praktika curricularrak edo derrigorrezkoak badituztela.

**Enplegu tasa praktikak egin dituzten eta ez dituztenen arabera.
UPV/EHUko graduon edo maila baliokideko egresatuak, 2008-2011 prom.**



Denboraren ardatzari erreparatuz, azpimarratzekoa da atzeraldi ekonomikoak iraun duen bitartean Zientzia Esperimentaletan borondatezko praktikaldiek izan duten igoera. 2008ko promozioan praktikaldia egin izanak ez zuen langabezia gutxitzen, aldiz, gaur egun, adar horretan du eraginik handiena. Gizarte Zientzien edo Ikasketa Teknikoen alorrean bilakaera egonkorragoa izan da.



ZER GERTA DAITEKE?


ENPLEGUAREN IKUSPEGITIK

- HURRENGO HAMARKADAN ERRETRETA HARTU IZANAREN ERAGINEZ ORDEZKAPEN BEHAR HANDIA

Hurrengo hamarkadan kualifikazio beharretan eragin handia izango du hainbat aldagaik. Besteak beste, aldaketa demografikoak, 2008an hasitako atzeraldi ekonomikoaren luzerako ondorioak, egungo munduko ekonomiaren testuinguruak, eta ekoizpen sistemaren apustu estrategikoek. Azken hauen eragina eta bilakaera epe luzeagoan ikusiko ditugu.

Europako Batasunaren baitan biztanleria aktiboaren apaltzea espero da, Euskadiko AEn handiagoa izango dena. Kopuru absolutuetan 2026 urterako galera hori 145.000 pertsona ingurukoa izango da. Etorkizunari begira irudikatutako egoera guztiak lanerako adinean izango den populazioaren jaitsiera nabarmena iragartzen dute, biztanleria aktiboaren bolumenean zuzenean eragingo duena.

Lan egiteko adina duen biztanleriaren bilakaera eta prospektiba. Euskal AE, 1971-2026




Zahartzea eta migrazio saldo negatiboa izango dira biztanleria aktiboa apaltzearen arrazoi nagusia. Euskadiko Erkidegoak EB-28rena baino zahartze handiagoa du, izan ere, hazkunde handia bizi izan zuen 70eko hamarkadan (industrializazio indartsuak eta lanera zetozen pertsonak erakarri izanaren eraginez). Hazkunde hartako belaunaldiak zahartzen doan neurrian bere enplegetan ordezkatzeko beharra handia izango da hurrengo hamarkadan. Erretreta hartutakoekin eta zahartzeak egun eragiten duen inaktibitate mailarekin, hurrengo hamarkadan bere egungo enplegua 244.000 pertsonak utziko dutela iragar daiteke.

- ENPLEGUA GEHITZEKO BEHARRA INDARTU BEHAR DA

Ordezkatzeko beharra handia izan arren, Euskadiko AEn ez da lanerako pertsonarik falta. Egun aktibitate gabe ditugun gazteak -espero zaien aktibitate mailarekin- lan merkatura gehituko direnez, egun lanik gabe dauden baina erretreta hartzeko adinik izango ez dutenak lanean jarrita, eta erabateko enpleguari dagokion langabezia mailarekin (*), etorkizunean ez da lan esku eskasiarik izango. Aitzitik, hurrengo hamar urtetan Euskadiko AEn gutxienez beste 40.000 enplegu berri sortu beharko dira bertako biztanleriarentzat (lanaldi osoko baliokidetzan). Aintzat hartzekoa da, egun Euskadiko AEn azpienplegu maila (%9,6) EB-28an dagoenaren lau puntu gainerik dagoela.

Ordezkapen enplegua eta enplegu berriaren eskaera.
Euskal AE, 2015-2025



Horregatik, hain zuzen, oso aintzat hartzekoa da enplegua gehitzeko beharra. Ekoizpen sisteman gertatuko diren aldaketen arabera egokituko dira etorkizuneko enplegu joerak. Euskadiko AEn ez da espero Manufakturako industriak 2008aren aurretik izandako enplegu maila lortzea, baina Ekoizpen mekanikoaren sektoreak gaitasuna izango du enplegu berria sortzeko eta bere potentzialitatea berrikuntzan egiten den ahalegin estrategikoaren arabera izango da. Energia ekoizpen eta distribuzioak ere enplegu berriak sortzeko aukerak ditu, energia berriztagarriei lotutako enplegu berriak.

Komertzialak ez diren zerbitzuetan, aurrez ikusten den joera administrazio publikoko enpleguaren murriztearena da. Hezkuntza, osasun, edo zerbitzu sozialetan hazi egingo da, ordea. Euskadiko AEn kasuan, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan enplegua murriztu egin daiteke jaiotza kopurua murriztu izanaren ondorioz, prozesu geldoa izango bada ere, formakuntza maila desberdinek urraska ezagutuko dutena. Hirugarren sektorean, aldiz, Osasun eta zerbitzu sozialetan, enplegu maila handitzeko beharra izango da biztanleriaren zahartze handiaren eraginez. Halaber, jarduera soziokulturaletan, aisialdikoetan, komertzialetan edo marketinekoetan enplegua sortzeko aukera dago.

(*) %5,5eko langabezia tasa hartzen dugu erreferentzia moduan, erabateko enpleguaren baitako proportzioa. Egun Alemanian, Txekiar Errepublika, AEB, Malta edo Erresuma Batuan dutena.

(**) Jubilatutako edo aurrejubilatutako lanpostuak hamar urtean.

(***) Biztanleria aktiboaren baitan (16-64 urte) erabateko enplegu mailara iristeko (%5,5eko langabezia) adin talde horri dagokion enplegu maila.

Iturria: EUROSTAT, INE eta bertan landutakoa.



-ABIADURA DESBERDINAK ENPLEGUAREN BERRESKURAPENEAN


Epe labur eta ertainean oso desberdinak dira enpleguaren berreskurapen aurreikuspenak, bai estatuen artean, bai sektoreen artean edo kualifikazio premietan. Belgika, Alemania, Frantzia, Austria, Finlandia, Suedia edo Erresuma Batuak egun atzeraldiaren hasieran baino enplegu tasa handiagoa dute. EB-28ak batzbesteko maila hori 2020 urterako iristea aurreikusita dago.

Beste herrialde batzuek, hala nola, Txekiar Errepublikak, Greziak, Espainiak, Hungriak, Portugalek, Errumaniak, edo Esloveniak, esaterako, ez dute 2025 baino lehen krisiaren aurreko mailara iristeko aurreikuspenik. Euskadiko AEn 2007an enplegu tasa 2015ean baino 6 puntu handiagoa zen. Beraz, urrun dago bere onera itzultzetik eta azken multzo honen joerari jarraitzen dio

- GIZA KAPITALAREN KUALIFIKAZIOA HOBETZEA BEHARREZKOA DA, BAI ETA BALIO ERANTSI HANDIKO JARDUERAK SUSTATZEA ERE

Egonkortuta dagoen ezaugarrietako bat, biztanleriaren formazio maila handia da, etorkizunean hazten joango dena. Egungo biztanleria aktiboa historiako kualifikatuena da eta belaunaldi gazteenak nabarmentzen dira horretan. Kapital hori denbora luzez egindako inbertsio sozialaren emaitza da, eta lehia globalaren inguruan, egitura ekonomikoa ezagumendu eta balio erantsi handiagoko jardueretara bideratzeko aukera eskaintzen du. Bide hori egin dute, hain zuzen, erreferentziazko Europako erregioek.

Goi-mailako ikasketak (**) burutu dituen 30-34 urte bitarteko biztanleria (%). 2015 urtea



(*) European Centre for Development of Vocational Training (2015). Europe's uneven return to job growth. Salónica: Cedefop.

(**) ISCED sailkapenaren 5, 6, 7 eta 8 mailen baliokide.



Ezagumenduaren ekonomiak trebatze ekintzak, instituzionalak eta ekonomikoak jasangarritasun, gizarte kohesio eta ongizate parametroetara bideratzen ditu. Helburu hori hartuta, egoerak ezinbestean gure gizarteak bere esku duen giza kapital kualifikatua ongi baliatzea eskatzen du eta unibertsitateko formazioa duten pertsonak bizi ditugun eraldaketa prozesuetan txertatzea, izan prozesu sozialak zein produktiboak.

JARDUERA UNIBERTSITARIOAREN IKUSPEGIA


- UNIBERTSITATEAK LANERATZEA INDARTZEN AHALEGINDU BEHAR DU, BAINA BABESA BEHAR DU

Hainbat faktore eragin handikoak dira (demografikoak, teknologikoak, aurrekontuzkoak edo nazioartekoak, esaterako) eta unibertsitateko jarduerari, laneratzeari edo formakuntza eta lanaren arteko bat etortzeari eragiten diote. Unibertsitatearen eragin eremua gaintzen duten aldagaiak dira baina orain arte bezala, etorkizunean ere ekintza unibertsitarioaren arrakasta baldintzatzen jarraituko du.

Unibertsitatearen lehen erronketariko bat egresatuen laneratzea hobetzea da, besteak beste, jarrera gero eta aktiboago eta konprometituago bat hartuz, bai orientazio personal eta laboralean, bai lan merkatuari buruzko aholkularitzan eta laguntzan. Beharrezkoa da unibertsitateak baliabide berriak abian jartzea. Ardura hori, ordea, ez da unibertsitatearena bakarrik eta hainbat eragileren inplikazioa behar du. Horixe da, hain zuzen, sortu berri dugun ehualumni sarearen xedea.

- UNIBERTSITATEAK ZAILTASUNAK DITU BERE EGITEKOA BALIABIDE GEHIAGO GABE BETE AHAL IZATEKO

Egungo errealitate demografikoak eta hortik epe ertainera eratortzen diren aurreikuspenek diote Euskadiko AEko ikasle unibertsitarioen kopuruak hazten jarraituko duela hurrengo hamabost urteetan eta ondoren berriro jaisten hasiko dela. Aldaketak espero ditugu belaunaldi berrietan adinari dagokionez, edo unibertsitateko matrikulazio ratioetan, Lanbide Heziketaren matrikulazio ratioen arabera. Ez da, ordea, egiturako aldaketarik espero izan behar epe ertainean.



Hala eta guzti, errealitate demografikoak hurrengo urtetan Euskadiko AEn unibertsitateko ikasleriaren bolumena handitzea iragartzen du. Egresatuen lan egoerak, aldiz, ekimen berriak eskatzen ditu unibertsitatearen aldetik, bai eta laneratzeko estrategia bateratuak ere (unibertsitatea, herri erakundeak eta enpresa). Ekintzok, bada, parte hartzen duten eragile guztien aldetik adostasun maila handia beharko dute.

- LANERATZE ETA UZTARKETA APALNEKO ADARRETAN ARRETA BEREZIA JARRI BEHAR DA

Laneratzeari dagokionez, hurrengo urteetan aurreikusten den arriskueta bata adar zientifikoaren polarizazioa da. Laneratzea eta titulazioen lan uztarketa oso aldakorra izaten ari zen datuak ditugunetik eta azken urteotako atzeraldi ekonomikoak egresatu gehienetan laneratzean oztopo handia izan da, zenbait titulazioen laneratzeari, ordea, bereziki konplikatu eta prekarioa da.

Baliteke egoera hau larriagotzea hurrengo urteetan eta horregatik komenigarria da arreta berezia jartzea fenomeno honi, eragin handia duena Humanitate edo Zientzia Esperimentaletan.

- LAN MERKATUA ERALDATZEN ARI DA AZKEN URTEOTAN

Egresatuen laneratzeari maila kualitatibo edo kuantitatiboan epe labur edo luzean nabarmen hobetuko duen aldaketarik ez da ikusten. Zenbait sektorek jada ez dute bermatzen baldintza duinetan ez kontrataziorik ez enplegurik, beste batzuk, aldiz, bere beharrak nabarmen aldatzen ari dira. Laneratzeari dagokionez esan beharrekoa da prozesuok indarrean dauden lan legediei lotuta datozela, unibertsitatearen jardura eremua gaintzen dutenak, askotan enplegu egonkor eta kalitatezkoa sortzeko asmorik gabe aplikatzen direnak.

Egoera honetan unibertsitateak zuzenean ezagutu beharko du sektore bakoitzaren egoera eta horrela trebakuntza eta laneratzeko estrategia zehatzak diseinatu, arreta handia jarriaz trebetasun osagarrien beharrei eta egun generoen artean dagoen aldeari.



ONDORIOAK

Txosten honetan 2009 eta 2015 bitartean LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzua / Servicio Vasco de Empleo erakundeak 40.000 egresaturi egindako inkesten azterketa zehatza egiten da. 2006 eta 2012 bitarteko promozioetako egresatuak dira, titulua lortu eta hiru urtera egindakoa. Bestetik, UPV/EHUko ikasleen borondatezko praktika programen exekuzio datuak aztertu ditugu, 2007/2008 ikasturtean hasi eta 2015/2016 ikasturtea bitartean. Programa horiek sustatu dituzten enpresa entitateak ere aztertu ditugu bakoitzaren jarduera adar, lurralde, maila teknologiko eta abarri erreparatuz.

Azterketa honetatik, honako ondorio hauek nabarmenduko ditugu:

Lehena: 2008-2015 aldia azken urteotan ezagutu dugun nahasienetakoa izan da biztanleria aktiboaren laneratzeari dagokionez oro har, eta unibertsitateko titulua duten pertsonen laneratzean bereziki. Langabezia tasak bilakaera hazkorra izan du 2010 urteko promozioa bitartean (2013 urtea) azken urteotan ezagutu den enplegu mailarik apalena izan zuena (%69,4) Egoera horretan ere, UPV/EHUko lizentziatu, diplomatu eta graduondoko tituludun berriek, unibertsitateko formakuntzarik ez zuten gazteek baino enplegu tasa handiagoak lortu dituzte adin tarte berean (15 puntuko aldea izateraino).

Azken urteotan enplegu tasak joera aldatu du eta hamar puntuko hazkundera izan du %79,2ra iritsita azken promozioaren artean (2012). Aktibitate tasak ere gora egin du azken promozioan, %95,6ra iritsi da.

Bigarren: Praktikaldiei dagokionez, datu gordinak erabat baikorrak dira. 2007/2008 ikasturtean hasitako serie historikoak, orotara borondatezko 6.304 praktikaldi zituena, 2014/2015 ikasturtean 9.829 praktikaldirekin amaitu zen.

Hazkunde hau praktikaldi programak orain arte ohikoak ez ziren unibertsitateko eremuetara hedatzetik etorri da. Honela, hasieran praktikaldiak legez ezarritako titulazioei lotutakoa izatetik (Osasun eta Hezkuntza arloko titulazioak funtsean) eta enpresa ehunarekin harreman handiko titulazio eta zentroen eginkizuna izatetik (enpresa eta ingeniariaritzaren arloko titulazioak), 2014/2015 ikasturtean UPV/EHUko ezagutza adar, ikasgu eta titulazio guztietan eragitera iritsi zen. Praktikaldi programetan parte hartzen duten enpresa eta erakunde kopuruari dagokionez, berriz, 6.800 izatera iritsi ziren. Halaber, egindako azterlanak erakutsi digu praktikaldiak egin dituzten tituludunen laneratzea halakorik egin ez dutenena baino %3 handiagoa dela eta hiru hilabete goizago gertatzen dela.

Praktikaldi programen datuak aztertuta, esan dezakegu tresna eraginkorra direla laneratzea hobetzeko. Ez dira helburu bere horretan, baina badira unibertsitateko jarduera ekoizpen ehunera zein herri erakundeetara hurbiltzeko baliabide eraginkor bat. Honek Ikasleak praktikotasunean trebatzeko eta trebetasun zein gaitasun nahikoekin lan merkatuan sartzeko unibertsitatearen estrategiaren balioa agerian jartzen du.

Hirugarren: Honek guztiak UPV/EHUk laneratze arloan zenbait tresna eraginkor baduela esatera garamatza. Badakigu ordea, ez direla aski hurrengo urtetan izango dugun inguru ekonomiko, sozial eta laboralari erantzuteko. Horrekin jabetuta, UPV/EHUk estrategia honekin bat datorren proiektu bat abiarazi du, ehualumni egitasmoa, bere baitan laneratzea hobetzeko helburu duten egitasmo zehatzak ere badituen. **Ehualumni** aurreikusitako ekintzen kaltetan gabe, UPV/EHUk eremu honetan lehentasunezko dituen ekintzak nabarmendu nahi ditugu, honakoak, hain zuzen:



Praktikaldiak egin dituzten ikasleak kontratatzeko bideak jartzen abegikorrago izan diren sektore, enpresa eta erakundeetan praktikaldi programen indartzea.

UPV/EHUren praktikaldi egitasmoen inguruan ez dauden enpresa, sektore eta erakundeetara hurbiltzea.

Egungo gradu eta graduondokoak formazio dualeko formatura egokitzeko aukera aztertzea, eta ahal balitz, formazio eskaintza berri baten aldeko apustua, alternantziatzko formazioaren parametroei jarraitzen diena.

Lan mundura hurbiltzeko aukera izan dezaten, Unibertsitateko ikasleriari zuzendutako mentorizazio egitasmoak garatzea ikasketak hasten dituztenetik.

Lan mundura hurbiltzeko aukera izan dezaten Trebakuntza Eskolaren heziketa osagarria, laneratzea hobetzen duten zeharkako trebetasuna jasotzera bideratua dena.

Laugarren: UPV/EHU jabetzen da titulatuaren laneratzean estrategikoa den ekintza hau ezin dela eraginkorra izan isolatuta. Honetan gabiltzan eragile guztiok, publiko zein pribatu (botere publikoak, administrazio publikoa, unibertsitatea, enpresari elkarrekin eta eragile sozialak) gara adostasunez jardun behar dugunak. Unibertsitatea da, zalantzarik gabe, ezagumenduan oinarritutako ekonomia baten zumeak sortzen eragile inplikatuenetarikoak.

Egungo biztanleria aktiboa historiako kualifikatuena da eta belaunaldi gazteak dira horretan gailen herri honetako egitura publikoen ahaleginari esker. Aurrean dugu ezagumenduaren erabilera handiagoa egin eta balio erantsi handiagoko jardueretara bideratzeko aukera. Lankidetzeta eta adostasuna beharko dira honetan dihardugun eragile guztion aldetik, eta horrela bada, UPV/EHU beti hor izango da.